



# ERAKUNDE TXOSTENA

*(2007ko abenduaren 1ean eta 2an egindako  
V. Batzar Orokorrean onetsitakoa)*

# AURKIBIDEA

*Orr.*

<b>I.- SARRERA.....</b>	<b>1</b>
<b>II.- ALDERDIAREN ANTOLAMENDUAREN BILAKAERA HISTORIKOA .....</b>	<b>3</b>
• Antolamendu-aldiak .....	3
• Antolamendu-ereduak .....	6
<b>III.- ANTOLAMENDU-ESTRATEGIAK.....</b>	<b>10</b>
• XXI. mendeko Europaren ezaugarriak.....	10
• Erakunde-txosten baten justifikazioa .....	11
• Linea estrategikoak.....	13
<b>IV.- ONARTUTAKO BALIOAK ETA IRIZPIDEAK .....</b>	<b>15</b>
<b>V.- ALDERDIAREN BARNE ANTOLAMENDUAREN ARDATZAK.....</b>	<b>17</b>
<b>1. Batzarrak.....</b>	<b>17</b>
<b>2. Diziplina, bermeak eta kontrola.....</b>	<b>18</b>
<b>3. Organo betearazleak .....</b>	<b>19</b>
• Taldean lan egitea .....	19
• Barne organoen arteko komunikazioa eta koordinazioa.....	20
<b>VI.- ALDERDIAREN ANTOLAMENDUA ETA EUZKADIREKIKO DUEN KONPROMISOA .....</b>	<b>22</b>
<b>1. Instituzioekin dituen harremanak .....</b>	<b>22</b>
• Barne karguen eta kargu publikoen arteko harremanaren bilakaera.....	22
• Batzorde sektorialak .....	23
<b>2. Gizartearekin duen harremana .....</b>	<b>24</b>
• Gizarte erakunde eta agenteekin dituen harreman-sareak .....	24
• Ingurune nazionalsozialistarekiko lankidetzaren sareak (publiko objektiboa).....	25
• Presentzia soziala afiliazioaren bitartez.....	25

*Orr.*

<b>3. Alderdia munduari irekitzea .....</b>	<b>27</b>
• Nazioarteko politika .....	27
• Mugaz kanpoko erakundeak eta diaspora.....	28
<b>4. Ezagutzaren prestakuntza, barneratzea eta kudeaketa .....</b>	<b>29</b>
• Kargu publikoak .....	29
• Barne karguak eta Afiliazioa .....	29
<b>5. Alderdiaren barne bizitza eta komunikatzeko eta parte hartzeko bideak dinamizatzea .....</b>	<b>30</b>
• Partaidetza.....	30
• Norabide biko komunikazioa.....	32
<b>6. Alderdia maila nazionalen indartzea .....</b>	<b>33</b>
<b>7. Barne hauteskunde-prozesuen antolamendua.....</b>	<b>33</b>
<b>VII.- EUSKARA ETA POLITIKA LINGUISTIKOA EAJ-PNV-REN ANTOLAMENDUAN .....</b>	<b>35</b>
<b>VIII.- BARNE ARAUDIA TRESNA GISA .....</b>	<b>36</b>

## I.- SARRERA

---

Hogei urte igaro dira EAJ-PNVk bere antolamenduari buruzko azken hausnarketa estrategikoa egin zuenetik.

Urte hauetan zehar “publikoa” izendatu ohi duguna aldatu egin da edota eremu publikoan tradizioz esparru pribatukoak ziren kontuak txertatu dira. Pertsona arteko harremanek, aukera/ez aukera erlijiosoak, ekintza positiboko politika publikoek, bioetikak edota ikerketa zientifikoaren mugek, duela urte batzuk arte kasurik onenean ere familian, unibertsitateko foroetan edo oso eremu murriztuetan aztertu izan direnek, hedabideetatik kanpora eztabaida publikoa eragiten dute.

Gaur egun, ia denak du bere alderdi publikoa eta, beraz, politikoa. Eremu pribatuan eta hedabideetan jorratzen diren gaien, diskurtsoen eta eztabaiden arteko aldea oso txikia da, diskurtso motei eta horien argudioei dagokienez handiagoa izan beharko balu ere; elkarreraginerako aukerak biderkatu egin dira eta baliabideak modu eraginkorrean kudeatzeko, gizarte premiak asetzeko eta arazoei irtenbide bat bilatzeko geroz eta beharrezkoagoak dira eraginkortasuna irabazteko bide bizkorak.

Paraleloki, euskal gizarteak agente sozio-politiko ugari sortu ditu: GKEak, elkarteak, ikerketa eta eztabaida foroak eta, oro har, poliki-poliki Euzkadi berria sarean egituratzen ari diren erakundeak. Sistema erreal edo birtual horiek iritzi-egoerak sortzen dituzte, diskurtso publikoa eraikitzen dute eta politikoki helduagoa eta jantziagoa den euskal gizartea taxutzen dute.

Era berean, alderdi politikook bizitza politiko demokratikoaren muina gara, gainontzeko gizarte-agenteeekin batera. Etorkizuna aurreikusten laguntzen duten bektore horiek guztiak kontuan hartzeko faktoreak ere badira gure erakundea aldi historiko honen beharrei eta erronkei egokitzeko.

Dokumentu honen helburua EAJ-PNVren antolamenduari buruzko hausnarketa estrategikoa berrartzea eta berritzea da, Alderdiak mugimendu gisa aurre egin beharreko erronkak kontuan hartuta. Mugimendu horren baitan 30.000 afiliatu daude, alderantzizko adin piramidea osatzen dutenak, afiliazioen hazkunde begetatiboa nabarmena da eta, era berean, Euskal Nazioari buruzko gure diskurtsoarekin bat datozen pertsona kopuruak gora egin du. Pertsona horiek haren garapenari lagundu nahi diote, guk Euzkadi kultural, sozial eta politikoki artikula dezagula nahi dute eta instituzioak zuzentzeko beren konfiantza dugula ziurtatu digute.

Gurea bezalako euskal gizartearentzako, Euzkadin erdietsitako kultura politikoaren garapen mailaren arabera, alderdi politikoentzako geroz eta eskari esplizituagoak dituenarentzako, beharrezkoa zaigu antolamendu bizkorra,

eragilea eta eraginkorra izatea; horregatik da hausnarketa estrategiko hau hain garrantzitsua, EAJ-PNVk, afiliatu guztien parte hartzearekin batera, hurrengo urteetan izango dituen antolamenduaren jardunbideak eztabaidatu eta adostu ditzan.

Erakunde Txosten honen lanerako gida ondorengo printzipioetan oinarritu da:

- Alderdiaren Antolamenduak aldi historiko bakoitzean bere helburu politikoak eta jarduketa-estrategiak lortzeko bitartekorik onena izan behar du. Antolamendu ona bitartekorik egokiena da, baina ezin du sekula helburua izan.
- Balioak finkatzeko lehenik eta behin balioztatu egin behar dira, ezinbestekoa da irizpideak berritzea, finkatzeak eta sendotzeak ez baitu zerikusirik atzean geratzearekin eta ezer ez egitearekin. Horrek ez du esan nahi du koiuntura-moden esanetara egon behar dugunik.
- Prozeduren erraztasuna bermatzea, parte hartze demokratikoa, barneko zein esparru publikoko karguak eta informazioa eskuratzeko aukera berdintasuna, jarduketaren gardentasuna; horiek guztiak Alderdiaren Antolamenduaren berezko betebeharrak dira.
- EAJ-PNVren antolamenduak jardunbideak ahalbidetuko dituzten balio positiboak lantzen jarraitu behar du. Gaur egun, beti bezala, batasun handiagoa izan dezagun eta helduagoak izan gaitezten, testuen eta jardunbideen interpretazioak ekidin behar ditugu. Gure xedea Erakunde modernoa, demokratikoa eta eraginkorra lortzea da.

Gure alderdiaren antolamenduak izan duen bilakaera gertutik aztertuta, aipatu printzipioak kontuan hartuta eta 1987ko Erakunde Txostenak indarrean egon den urte hauetan aurkeztu dizkigun mehatxu eta aukerei erreparatuta, komunikazioari eta organoen eta funtzioen egunerapenari dagokienez aldaketa berritzaile batzuk proposatu ditugu. Era berean, XXI. mendeko euskal gizarteak alderdi politikoaren antolamendua eta gizarteratzearekin lotuta dituen premiak ikuspuntu errealista eta eguneratu batetik aztertu ditugu.

## II.- ALDERDIAREN ANTOLAMENDUAREN BILAKAERA HISTORIKOA

---

### ⇒ Antolamendu-aldiak

Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vascoren antolamendua aldatuz joan da bere historia guztian zehar. Bilakaera honetan zazpi fase edo aldi ezberdin bereiz daitezke:

**1. fasea (1893-1906).** 1893-1903 urte bitartean erakundea Sabino de Arana pertsona karismatikora mugatzen zen. Aranak 1895eko uztailaren 31n sortu zuen Alderdia eta 1903 eta 1906 bitartean Aingeru Zabala egiazko erakunde baten oinarriak finkatzeaz arduratu zen. Lehendabiziko fase honetan ez zegoen, antolamendu-alderdiari dagokionez, alderdi politikorik:

- ez zegoen estatuturik (1894ko Euskeldun Batzokijaren erregelamendua salbuetsita),
- ez zegoen egitura egonkorrik, eta
- antolamendua, oro har, Bilbora mugatzen zen.

**2. fasea (1906-1921).** Alderdia hazi eta hedatu egin zen eta sei-estatutu testu egin ziren:

- 1906ko Bilboko Estatutu Orokorrak.
- 1908ko Elgoibarko Estatutu Orokorrak.
- 1911ko Elgoibarko "Akordio Substantzialak".
- 1914ko Zumarragako Estatutu Orokorrak.
- 1916ko Comución Nacionalista Vascaren Estatutu Orokorrak.
- 1920ko Comución Nacionalista Vascaren Estatutu Orokorrak.

1916an Euzko Alderdi Jeltzaletik abiatuta Comución Nacionalista Vasca sortu zen.

Aldi honetan gure Alderdiak nazioarteko proiektzioa izan zedin ere ahaleginak egin ziren. 1907an Llo-Llo-ko (Filipinetako Panay Irlako hiria) Euzkeldun Batzokija inauguratu zen, 1907an Jose María de Larrea Alderdiaren Amerikako Ordezkarria izan zen eta 1908an Alderdiaren ordezkarri bat izendatu zuten La Habanan Batzoki bat sortzeko izapideei ekiteko. 1911n Rosarion komite nazionalistak sortu ziren eta 1919an eta 1924n Argentinako Comución Nacionalista Vasca eta Acción Nacionalista Vasca, hurrenez hurren.

**3. fasea (1921-1933).** Alderdiaren barne desadostasunak zirela eta, berau bi erakunde politikotan banatu zen, Comución Nacionalista Vasca eta Aberri-Partido Nacionalista Vasco, hain zuzen ere, eta urteetan zehar biak batera bizi izan ziren. 1930eko azaroan Aberri eta Comución-ek onarritako akordio bat lortu zuten Partido Nacionalista Vasco-Euzko Alderdi Jeltzalea izen ofizialarekin bateratzeko. Aldi honetan 1922ko Zornotzako Aberri-Partido Nacionalista Vascoren Estatutuak onartu ziren.

**4. fasea (1933-1937).** 1933ko urtarrilean Tolosako estatutuak onartu ziren. Aldi honetan euskal nazionalismoak berpizkunde berria bizi izan zuen eta gizartean errotu zen. Euskara, kultura eta tradizioak, babestu eta sustatu beharreko nortasun-ezaugarri gisa, berreskuratzeko mugimendu politiko eta sozial zabala eta bizia nabarmendu zen. Altxamendu militarrek eta indar demokratikoen hondamenak mugimendua bertan behera uztea eragin zuten.

1916-1933 aldiaren Alderdiaren antolamenduaren egiazko bilakaera gertatu zen eta horrek gaur eguneko antolamendua bere osotasunean kasik barne hartuko zuen eskema orokorra ahalbidetu zuen:

- Comunionen 1916ko eta 1920ko Estatutu Orokorrek botere gehiena EBBan pilotzearen aldeko eredu txertatu zuten.
- 1922ko Zornotzako Aberri-Partido Nacionalista Vascoren Estatutu Orokorrek beste eredu bat txertatu zuten, zeinaren bitartez herriko eta lurraldeko erakundeen eskumenak onartzen hasi ziren.
- Azkenik, 1933ko Tolosako Estatutu Orokorretan gaur egungo erakundearen ezaugarri nagusiak bereiz daitezke:
  - a) Alderdia hiru mailatan egituratzea: nazionala, eskualdekoa eta tokikoa.
  - b) Alderdia hiru boteretan egituratzea: legegilea, betearazlea eta judiziala.
  - c) Emakumeak Alderdian sartzea Alderdiaren baitan bozkatzeko eskubidearekin.

1936 eta 1977 bitartean, gerra eta klandestinitatea zirela eta, Tolosako Estatutu Orokorretan aurreikusitako antolamendua mugatuta egon zen bere aplikazio errealari zegokionez.

**5. fasea (1937-1977).** Klandestinitate-aldia.

1936ko kolpe militar faxistak eta haren ondorio negargarriek euskal politikaren jardunaren erdigunea Iparralden, Frantzian eta Katalunian kokatu zuten. Hiru ordezkariak eratu ziren: Bartzelona, Angelu eta Paris. EBBren zuzendaritza Angelun finkatu zen.

Gerora, Kontseilu Nazionala berrantolatzeko proiektua onartu zen eta Batzorde Betearazle bat sortu zen Parisen. Berau lurralde historiko bakoitzeko ordezkari banak, Eusko Jaurlaritzarekiko harremanen ardura zuenak, osatzen zuten.

Angeluko Batzorde Iraunkorra gainontzeko alderdiekiko harremanetaz, propagandaz, barne antolamenduaz, emigrazioaz zein gizarte laguntzaz arduratuko zen.

1946an Buruzagien 1. Batzarra antolatu zuten, Euzkadi frankistako lehendabiziko EBBa izendatu zuten eta Eskualde Kontseiluak berregituratu ziren.

Bi sektoreak bakar batean elkartu ziren eta eskumenak bien artean banatu zituzten (bat barne arazoetarako eta beste bat arazo orokorretarako). Gai garrantzitsuei zegokienez adostasuna bilatzen ahalegindu ziren eta informazio sareak ondo funtzionatzeak aukera hori erraztu zuen. Hala ere, praktikan barne EBBa zen alderdia zuzentzeko autoritatea zuena, 60ko hamarkadaren hasieran kanpoko burukideek berriro ere alderdiaren zuzendaritza beren gain hartu zuten arte.

1965 aldera barne antolamendu prekarioa berregituratzen hasi ziren eta antolamendu bizkaitarra alderdiaren gotorleku nagusi bilakatu zen, EGIrekin eta emakumeen erakundearekin batera (Emakume Abertzale Batza).

Frankismoa bukatzeaz zegoela ikusita, EBBk goitik behera eguneratzea erabaki zuen:

- Zuzendaritza berregituratutako barne EBBaren eskuetan geratu zen. Azken hori eskualde bakoitzeko 3 kidek osatzen zuten eta horietako bat Iraunkorra izango zen.
- Barne idazkaritzak lau eskualdeko kontseiluak koordinatuko zituen eta 1973tik aurrera kudeatzailetza betearazlea osatuko zuen.
- EBBaren Iraunkorra antolamenduaren muin eta motore bihurtu zen eta lehendabiziko aldiz EBBaren barne ordezkari bat sortu zen Beyris-en.

**6. fasea (1977-1984/1985).** 1977an “Iruñeako Erakunde Txostena” egin eta onartu zen, eta Tolosan aurreikusitako antolamendua –egunerapen batzuekin– berrartu zuten.

Mugimendu politiko handiko aldi honetan, Alderdiak kargu publiko ugari txertatu behar izan zituen Instituzioetan. Garai hartako dinamismo politiko handiak aipatu Iruñeako txostenaren aurreikuspenak gainditu zituen eta antolamenduaren aldetik konpontzen ahalegindu ziren lehen arazoak agertu ziren. Horrela, 1984an eta 1985ean estatutuak aldatu egin ziren (afiliatuei, batzarrei, exekutiboari eta bateraezintasunei zegozkien tituluekin lotutako aldaketak).



**7. fasea (1985- ).** Poliki-poliki, Alderdiak zatiketa gainditu zuen eta **Zestoako Batzar Nazionalan**, *Erakunde Oinarriak* (Erakunde Txostena) onartu ziren, 1987ko Aberri Estatutuak egitea eta onartzea ahalbidetu zutenak. Azken horietatik abiatuta, EAJ-PNV Alderdi bakarra bezala definituta geratu zen, batik bat Batzar Nazionalak aukeratutako exekutiba nazionala eta bi organo berri, hots, **Batzar Nagusia** eta **Aberri Berme eta Zaingo Batzordea**, zituena. Urteak igaro ahala, egindako estatutu aldaketa ugariak antolamendu sarea zehaztu dute, eskumenen eta bateraezintasunen esleipenak finkatu dituzte etab.

Egungo errealitateak erakunde politikook aurre egin beharreko testuinguru sozial eta politikoa aurkezten digu:

- alde batetik, aldaketa sozio-komunikatiboen azkartasuna eta sakontasuna, hedabideen eta IKTen, informazioaren eta komunikazioaren teknologien, geldiezineko eraginarekin batera;
- beste aldetik, Euzkadiko “herritar berriak” gizarteratzeko erronka;
- azkenik, Espainiako, eta bereziki Euzkadiko, bizitza politikoaren, ekonomikoaren, sozialaren eta kulturalaren pixkanakako judizializazioa kontuan hartuta, erabakiak hartzeko prozesuetan Alderdiaren antolamendu egitura malgua eta bizkorra izan dadila komeniko litzateke.

#### ⇒ Antolamendu-ereduak

Bere hastapenetatik, Alderdiak izaera parte hartzailearen eta barne demokraziaren printzipioekiko errespetuaren arabera egituratzearen aldeko apustua egin du. Bere printzipioei jarraiki, instituzio-izaera duen alderdi demokratiko orok tentsio demokratikoko eta parte hartzaileko antolamendua izan beharko luke.

Bere historia guztian zehar EAJ-PNVk ez du antolamendu sistema uniformerik izan. Alderantziz, estatutu ezberdinetan aurkeztutako antolamendu ereduak ez datoz bat oinarritzko ezaugarri askori dagokionez. Hala eta guztiz ere, antolamendua beti bi ardatz handiren inguruan eraiki izan da: lurraldeko artikulazioa eta artikulazio funtzionala. Bai batean zein bestean eredu batek besteari jarraitzen dio.

#### **1) Lurraldeko artikulazioari dagokionez (udalekoa – lurraldekoa – nazionala):**

- 1906 eta 1916 bitarteko Estatutu Orokorrak eskualdeko/lurraldeko maila udalekoarenaren gainetik dagoelako nabarmentzen dira. Izan

ere, Lurralde Kontseiluek eta Kontseilu Gorenak (nazionala) Udal Erakundeen antolamendua eta funtzionamendua baldintzatzen ditu.

- Beranduago, Comunionen 1916 eta 1920ko Estatutu Orokorrek eredu berri bat txertatu zuten. Azken horren bitartez, ia botere guztia EBBan pilatu zen.
- 1922tik aurrera, udal eta lurralde erakundeen eskumenak onartzen hasi ziren, eta 1933an Tolosako Estatutu Orokorrak<sup>1</sup> onartu ziren.
- Azkenik, 1987ko Zestoako Batzarrak Alderdia honela definitu zuen: *“alderdi politiko bakarra, udaleko, lurraldeko eta maila nazionaleko erakundeetan egituratutakoa”*. Horrenbestez, ez zen udaleko eta eskualdeko esparruko alderdien konfederazio bat.
- Gaur egun, beharrezkoa da udalaz gaindiko esparruko foroak, esate baterako eskualdea, bailara, koadrila eta lurralde bakoitzaren baitan hausnarketarako eta eztabaidarako egokiak diren beste batzuk ahalbidetzea. Izan ere, azken horiek ezinbestekoak dira erabaki politiko jakin batzuk hartzeko. Topaketa-eremu horiek erakundearen barne esparruan eta instituzio-politikoan lagungarriak dira eta, gainera, Alderdiaren egitura eraginkorragoa izatea ahalbidetzen dute.

## **2) Artikulazio funtzionalari dagokionez (botere betearazlea-legegilea-judiziala):**

Alderdiaren antolamenduaren bilakaeran, artikulazio funtzionaleko eredu bat baino gehiago existitu dira:

- **Batzarrak:**
  - Lehendabiziko estatutu orokorrek garrantzi handia ematen zioten lurraldeko eremuari. Udal Batzarrek autonomia funtzional eskasa zuten eta Batzar Orokorra (Nazionala) txertatzeko bidean zegoen.
  - 1914ko Estatutu Orokorren helburua funtzioen banaketa lortzea zen. Horretarako, Udal Batzarrak sustatu ziren eta Aberri Batzarra hobeto zehaztu zen. 1916 et 1920ko Comunionen Estatutu Orokorretan, maila nazionalan zentralizatutako eredu txertatu zen.
  - 1933-1977-1985eko Estatutu Orokorretan, pixkanaka batzar guztiak indartzeko eta hobeto zehazteko prozesuak gaur egun indarrean dagoen eredu funtzionala eragin zuen.

<sup>1</sup> Tolosako Batzarrean, EAJ-PNVk bere burua honela definitu zuen: *“beren esparruan burujabeak diren eta itun konfederalaren bitartez elkarri lotuta dauden udal eta eskualde erakundeen erregimen konfederallean egituratuta dagoen alderdia”*.

- 1987ko Aberri Estatutueta **Batzar Nagusia** sortu zen, beste alderdi politiko batzuen kongresuen antzekoa dena.

o ***Udal eta Nazio Batzarren eraketa:***

Urteak igaro ahala Alderdiaren sistema aldatu egin da. Horrela, hasiera batean udal batzarrek ordezkari kopuru bera zuten lurralde batzarretan eta lurralde batzarrek ordezkari kopuru bera nazio batzarretan. Denborarekin, aldiz, boto ponderatua eta arindutako ordezkari-tza proportzionala gailendu ziren<sup>2</sup>.

1933tik aurrera Batzar Nagusiko ordezkariak aukeratzeko sisteman aldaketa nabarmenak egon ziren: ordurarte lehen mailakoa (Udal Batzarretatik) zen aukeraketa, bigarren mailakoa (Lurralde Batzarren bitartez) izatera igaro zen.

o ***Funtzio judiziala eta berme eta kontrolerako funtzioa:***

- Comunionen 1916 eta 1920ko Estatutu Orokorretan, exekutibek funtzio judiziala beren gain hartu zuten, eta lehendabiziko Estatutu Orokorretan (1906) jada agertzen ziren epaitegiak deuseztatu zituzten.
- 1922an lehenengo aldiz bereiztutako artikulazio funtzionalari ekin zitzaion: erakunde bakoitzak bere batzarra, exekutiba eta epaitegia zituen eta funtzio "legegilea", betearazlea eta judiziala argi eta garbi bereiztuta zeuden.
- Zestoako Erakunde Txostenetik abiatuta, organo nazional berri bat sortu zen –Aberri Berme eta Zaingo Batzordea– eta azken horri honako funtzioak egokitu zitzaizkion: a) bitartekaritza, b) afiliatuen eskubideak bermatzea; eta c) barne hauteskunde-prozesuen kontrola. Horrela bada, barne epaitegien betebeharra diziplina esparrura eta inpugnazioak konpontzera mugatu zen.

o ***Organo betearazleen egitura:***

- Lehendabiziko urteetan, (1906-1908-1911) lurralde kontseiluen antolamendu nagusitasuna nabarmena zen: lurralde kontseiluak udal batzarreko kide guztiak edo batzuk izendatzen zituen, bere erabakiekiko beto eskubidea zuen, batzarrak

<sup>2</sup> Horrela, 1922an Zornotzako Batzarrean onartutako Euzko Alderdi Jeltzalearen estatutuen arabera, boto ponderatuko sistema ezarri zen udal batzordea Eskualde Batzarrean eta Batzar Nazionalean ordezkatzeko zuten ahaldua bakoitzarentzat: afiliatu batetik 50era boto 1 zuen, 51etik 125era bi boto, 126tik 200era hiru boto... eta horrela 901etik aurrera arte, 8 botorekin.

2004ko Aberri Estatutueta, Lurralde Batzarretan, Udal Batzarretan aukeratzeko ahaldunek dituzte ahotsa eta botoa, arindutako ordezkari-tza proportzionalako sistema baten arabera. Era berean, Batzar Nazionalean Lurralde Erakundeetako eta Lurraldez kanpoko Erakundeetako ordezkariak dituzte ahotsa eta botoa, arindutako ordezkari-tza proportzionalako sistema baten arabera.

- bertan behera uzteko edo berritzeko ahala eta bere erabakiak babesteko eta fiskalizatzeko eskumena.
- Funtzionamendu sistema hau poliki-poliki aldatuz joan zen, 1922an Zornotzako estatutuak onartu zirenera arte. Azken horiek inflexio-puntu bat adierazten dute eta udal batzarren autonomia formalki onartu zuten.
  - Azkenik, Zestoako Batzarrean Alderdi nazional bakarrarekin eta eskumenak organo eta maila ezberdinen artean banatzearekin koherenteagoa den erakunde-ikuspegia txertatu zen.

### **3) Alderdia-kargu publikoak artikulazioari dagokionez:**

Kargu publikoen eta barnekoen arteko bateraezintasunaren ideiak botereak banatzeko printzipioan du oinarri, kontrolatzen duenaren eta kontrolatua denaren artean nahasmenik egon ez dadin eta boterea pilatu ez dadin. Horrek, alde batetik, diskurtso politikoaren antolamenduaren, ideologiaren eta egunerapenaren artean bereizketa egitea eragiten du eta, bestetik, programa politikoaren garapena eta kudeaketa. Eta horrenbestez, dagozkien barne karguek kargu publikoek duten eginbehar instituzionala kontrolatzea.

Urteak igaro ahala, eredia finkatu eta eguneratu egin da. Alderdiaren historia guztian zehar, lehen Eusko Jaurlaritzari zegokion gerrako eta klandestinitateko aldia salbu, sekula ez zen bidezalia azken 25 urteotan bezala praktikan jarri. Urte hauetan zehar etengabe jardun ahal izan du eta, oro har, koalizio-gobernuen bitartez. Azken horietan alderdiak eutsi dio, talde nagusi gisa, bereziki instituzioari, ardura handiena zuen alderdia zen aldetik.

Gure esperientzia luzeak arrakastatik eta huts egiteetatik abiatuta ikastea eta Alderdiaren helburuak eta erabaki estrategikoak lortzeko beharrezko egokitzapenak egitea ezinbestekoa dela baieztatzea ahalbidetu digu. Are gehiago, bakoitzak zer eta nola egiten duen zehaztu behar dugu, lidergo instituzionaleko etengabeko esperientzia baten ostean.

Premiazkoa da aurkezten dugun Erakunde-Txostenean hausnarketa hori txertatzea, koalizio instituzionalen kultura politiko berrian duen izugarritzko garrantzia dela eta.

### III.- ANTOLAMENDU-ESTRATEGIAK

---

Zestoako Batzarra (1987) egin zenetik 20 urte igaro dira, gure barne antolamenduari buruzko hausnarketa egiteko eta beharrezko hobekuntzak zehaztu ahal izateko nahikoa denbora.

Antolamenduarekin lotutako oinarritzko printzipioak eta irizpideak onartu ondoren, beharrezkoa da hurrengo galderei eraginkortasunez erantzutea:

- Zein da gure Alderdiaren funtzionamendu erreala Erakundearekin lotutako alderdi ezberdinei dagokienez?
- Antolamenduarekin lotutako zein mekanismo eta prozedura eguneratu ez dira nahikoak?
- Zeintzuk dira sendotu edo indartu beharreko irizpideak?

#### ⇒ XXI. mendeko Europaren ezaugarriak

Geroz eta ingurune dinamikoago, irekiago eta konplexuagoak gaurkotasun politiko eta soziala baldintzatzen du. Informazio eta teknologia berriek duela urte batzuk pentsaezinak ziren aukerak eskaintzen dizkigute, estatuak berregituraketa eta subiranotasunak uzteko dinamiketan sartuta daude eta nazioak testuinguru konplexu eta, aldi berean, aukeraz betetako horretan beren lekua behar bezala topatzen ahalegintzen dira.

Antolamenduaren esparruan, hurrengo garaietan aldaketa eta erronka garrantzitsuak gertatuko dira:

- Teknologia berriek (TTBB), IKTek eta Internetek informazio berria eskaintzen dute eta horizontalagoak eta arinagoak diren sareko harremanak ahalbidetzen dituzte.
- Erakundeen jarduketa baldintzatzen duten prozesuak etengabe aldatzen dira eta tresnak eta bitartekoak egokitzuz, lehenetsuneko, ikaspeneko eta hobekuntzako printzipioei erreparatuz lan egitea beharrezko egiten dute.
- Ezagutza eta berrikuntza funtsezkoak dira; taldean lan egitea, pertsonen inplikazioa, arduren ordezkariak eta giza baliabideen optimizazioa erakundeen kulturaren nagusitzen dira.

- Era berean, emakumeek eta gizonek gizartean tradizioz jokatu duten papera izugarri aldatzen ari da. Lan-munduan emakumeen parte hartzea areagotzeak eta erabakiak hartzeko geroz eta aukera gehiago izateak berdintasun eraginkorra lortzeko bidean aldaketa sozialak eragiten ari dira.
- Lan-prozesu sistematizatuak jarduketa-programen oinarria dira. Eta azken horiek mugatutako esparru edo funtzioetan banatuta dauden planen gehikuntza gisa kontuan hartzen direnean, ez dira helburuetan zentratuta egon ohi, bitartekoetan baizik, eta oro har ez dira eraginkorrak izaten.

#### ⇒ Erakunde-txosten berri baten justifikazioa

Gure alderdiaren baitan antolamenduari buruzko diagnostiko orokorra dugu, gehiengoak onartzen duena eta ondorengo ezaugarri nagusiak dituena:

- **Kudeaketa-moduak.** Beharrezkoa da lan sistematikoan eta TTBBen, IKTen, Interneten, intraneten, afiliatuen txartel digitalaren etab.-en erabileran oinarritutako jarduketa-modu berriak txertatzea.
- **Koordinazioa.** Beharrezkoa da EBBaren eta Lurralde Kontseiluen arteko koordinazioa eta Lurralde Kontseiluen eta Udal Batzarren artekoa hobetzea.
- **Heziketa- eta prestakuntza-modu berriak.** Ezagutza eta berrikuntza abantaila konpetitiboko faktore gisa barneratu behar ditugu. Alderdiaren buruzagiek etengabe eguneratu behar dituzte beren ezagutzak, politika sektorialeiei dagokienez batik bat.
- **Komunikazioa.** Beharrezkoa da komunikazioa berrikustea eta egokitzea. Aipatu hori direkzio bikoiztasunari dagokionez hobetu beharra dago. Bestalde, gure mezuak herritarrei helarazteko komunikazio-kanalak ere hobetzea beharrezkoa da.
- **Barne karguen eta kargu publikoen arteko harremana.** Bizefaliak zentzua du barne karguen eta kargu publikoen arteko harremana ezartzeko unean. Praktikan, instituzio publikoek gai politiko eta sektorial handien helburuak eta ardatz nagusi estrategikoa ezartzen dituzte, eta Alderdiaren barne organoek funtzioak eta prozedurak beren gain hartu behar dituzte *“irizpide politikoak zehazteko, kargu publikoak orientatzeko, babesteko eta kontrolatzeko... kargu publikoak dituzten afiliatu guztien ekintza politikoa orientatzeko... eta, hala badagokio, ardua politikoa eskatzeko”*, gure Aberri Estatuetan zehaztutakoaren arabera aldebiko osagarritasuna eta sustapena eraginkorrak izan daitezten.
- **Artikulazio sektoriala. Alderdiak gizartearekin duen harremana.** Beharrezkoa da mugimendu eta erakunde sozialetara gerturatzeko metodo

sistematiko bat finkatzea eta, horretarako, Alderdiaren batzorde sektorialen funtzionamendu egokia bermatzea.

- **Alderdiak Estatu Espainiar eta Frantziarrarekin, Europan eta Munduan duen harremana.** Alderdiak nazioarteko esparruan eta, bereziki, munduko komunitate euskaldunetan, duen garrantzi egituratua gehiago lantzeko eta indartzeko lan egingo da.
- **Afiliatuen parte hartzea.** Ezinbestekoa da gai politikoei (kontzeptuekin eta eskumenekin lotuta transbertsalak direnei edo sektorialak bezalako gai orokorrei dagokienez) buruzko eztabaida sustatzea.
- **Barne hauteskunde-prozesuak.** Laburbildu egin beharko lirateke, hauteskunde-prozesu orotan ezinbestekoak diren parte hartzeari eta bermeei kalterik eragin gabe.
- **Erakundearen eta banatutako eremuen ikuspegi nazionala.** Beharrezkoa da Alderdiaren lurraldeetako eta udaletako errealitate, interes eta helburu ezberdinentzako eraginkorra izango den erakundea lortzea. Horretarako oinarria ikuspegi estrategiko nazionala izango da, gure barne aniztasuna errespetatuz, lurraldeetako eta udaletako erakunde guztietan aurrera egiten jarrai dezagun.

Laburbilduz, ezagutza, komunikazioa, itunak, gizarte-agenteeekin ditugun lankidetzak-harremanak, erakundearen praktikari buruzko hausnarketa, etab. gure Erakundea hobetzeko helburuak dira. Gure puntu ahulak indartzeko konponbide errealistak eskaintzea beharrezkoa izango da, eta XXI. mendeko Euzkadik alderdiontzako dituen erronka berriei aurre egitea.

Erakunde gisa dugun historiak etengabe aldatzen den errealitatera egokitzeko beharra islatzen du: Sabino Aranek alderdiarekin lotutako kontzeptu berri bat plazaratu zuen, XX. mende hasierako euskal gizarteak eskatzen zuenarekin bat zetorrena. Lehendabiziko euskal alderdi nazionala gara eta 110 urtez egon gara Euskal Herriaren zerbitzura; horregatik, bi aldiz harro sentitzen gara.

Gure xede eta proiektuak gure Herriko sektore handien sinesmenen eta itxaropenen isla dira: Euzkadiko erreferente politiko nagusia gara, inguruko errealitatera behar bezala egokitzen jakin izan baitugu, eta gure mezua eta jardunbideak etengabe aldatzen ari den gizarte baten eskariei egokitu ditugulako. Horri esker, Euzkadin aldaketa-prozesu politiko, sozioekonomiko eta kulturalak zuzendu ditugu eta etengabe Euzkadiren interesen alde borrokatzen duen “alderdi-komunitate” gisa ospea irabazi dugu.

Gure erronka bide horretatik jarraitzean datza, EAJ-PNVren helburu eta programa estrategikoak antzemateko tresnarik egokiena den antolamoldea bilatzea eta Euskal herritarrak direla sentituko duten etorkizuneko belaunaldien sozializazioa bermatzea.

## ⇒ Linea estrategikoak

EAJ-PNV da eta izaten jarraituko du giza eskubide indibidual eta kolektibo guztiak babesteko eta euskal nazioa eraikitzeke erreferente politikoa. Gure Erakundearen filosofia bi helbururen bitartez laburbil daiteke:

- Alderdiaren bizitasuna etengabe bilatzea.
- Alderdiaren helburuak lortzeko bizkortasunak, eraginkortasunak eta eragingarritasunak Erakunde proiektu demokratiko batekin bat egitea.

Testuinguru horretan, Txostena erakunde-jarduketarekin lotutako lehentasun edo linea estrategiko batzuen garapen hobea lortzeko diseinatu da, XXI. mendeko Europako eta munduko testuinguruan Alderdiaren helburu estrategikoak lortzeko.

Lehentasunak honakoak dira:

- **Alderdiaren organoak indartzea**, etengabeko koordinazioa eta komunikazioa dituzten talde gisa.
- **Barne karguen eta kargu publikoen arteko harremanak modu eraginkorrean garatzea**. Lanerako metodologia argien eta eraginkorren bitartez, barne organoen arteko eta arduradun publikoekiko komunikazioa-koordinazioa sistematizatzeko Alderdiaren ekintza politikoak behar bezala identifikatzea.
- **Alderdia gizarteari irekitzea**:
  - Euzkadiko instituzioekin, hedabideekin, gainontzeko alderdi politikoekin eta hiru esparru juridiko-politikoetako gizarte-talde eta agenteekin harreman sare bat ezarriz;
  - jarraitzaileekin (publiko objektiboa) lankidetzeta-linea egonkorrek sortuz eta indartuz eta Alderdiaren proiektu politikoaren alde dauden pertsonak eta taldeak elkartuz;
  - Udal Erakundeak gizarteari irekiz (“abrir las puertas del batzoki-batzokiaren ateak ireki”), bereziki geografikoki edo birtualki gertuen dauden gizarte-agenteei.
  - Teknologia berriak erabiliz, existitzen diren komunikazio-kanalez baliatuz eta komunikazio-teknika berritzaileak txertatuz.
  - gure proiektu politikoaren alde dauden euskal gazteen inplikazioa bilatuz, horretarako parte hartzeko dituzten aukerak indartuz.



- **Alderdia nazioarteko eremuari irekitzea:**
  - gure garaira egokitutako nazioarteko politika egituratu bat garatuz;
  - Euzkadiz kanpoko instituzioekiko, hedabideekiko, alderdi politikoeziko, gizarte-talde eta agenteekiko harremanak sustatuz;
  - Alderdiaren eta Diasporaren lurraldeez kanpoko erakundeek jokutzen duten papera berriro ere zehaztuz, beren ingurune bitalean Euzkadiarekin lotutakoa sustatzeko agente aktiboak diren aldetik.
  
- **Afiliatu ororen prestakuntza eta ezagutza sustatzea**, barne karguena eta kargu publikoena eta gazteena batik bat, **Alderdiaren barne bizitza dinamizatzea**, horretarako barne parte hartzea eta eztabaida sustatuz, eta **komunikatzeko modu bizkorak eta norabide bikoak ahalbidetzea**, TTBBen eta IKTen bitartez batik bat.
  
- **Alderdiaren antolamendua sendotzea** eta horretarako lurralde bakoitzaren helburuak eta ekintza-planak, oinarri nazional komun batzuetan oinarritutakoak, sustatzea. Horrek honakoa esan nahi du:
  - esparru nazionala sendotzea, erakundeko maila ezberdinen arteko lankidetzan eta koordinazioan oinarrituta,
  - lurralde bakoitzaren errealitatearen garrantzia antzemateko nahikoa malgutasun izatea eta lurralde bakoitzaren helburu espezifikoak sustatzea, eta
  - gutxiengo kolektiboak ez itotzeko eta gehiengoak ez eteteko nahiko zentzu praktiko izatea.
  
- **Barne hauteskunde-prozesuak laburbiltzea** eta Alderdiaren baitan eztabaidak sustatzea.

## IV.- ONARTUTAKO BALIOAK ETA IRIZPIDEAK

---

Indarrean dauden Aberri Estatutuetako printzipioek –Zestoako Erakunde-Txostenetik abiatuta martxan jarri zen prozesuaren isla direnak– EAJ-PNVren erakunde eta politika kulturalen azken hamarkada hauetan errotuz joan diren balioak jasotzen dituzte. Babestu, berretsi eta, hala badagokio, etorkizunari begira eguneratu beharreko erakundearekin lotutako nortasun ezaugarri batzuk zehazten dituzte. Hurrengoak nabarmentzen ditugu:

- 1) Lurraldeetan eta udaletan oinarritutako euskal esparru nazionalako Erakunde-Printzipioa.
- 2) Berdintasun eta parte hartze printzipioa, bere diskurtsoan eta ekintzetan demokrazia, aniztasuna, akonfesionaltasuna eta humanismoa babesten dituela.
- 3) Baliabide publikoen kudeaketan gardentasun eta zintzotasun printzipioa eta politikaren jardunean jokabide etikoa.
- 4) Euskaldunen berezko hizkuntza nazionala euskara dela azpimarratzen duen printzipioa eta hura normalizatzeko konpromisoa izatea, eta eremu urriko hizkuntzaren eta bere aurrerakortasunaren aldeko ekintza positiboko irizpideak aplikatzea.
- 5) Boterea ez pilatzeko eta kontrolatzen duena eta kontrolatua izan behar duena ez nahasteko printzipioak.

Laburbilduz, EAJ-PNV ALDERDI BAKARRA da:

- Batzarretan oinarritutako alderdia dena, bere afiliatu guztien parte hartze erreala ahalbidetzen duena eta, aldi berean, bere udal, lurralde edo nazio organoei erabakiak hartzeko behar duten eskumen esparruarekiko errespetua bermatzen diena.
- Bere barne organoak botereen eta funtzioen banaketan oinarrituta egituratzen dituena.
- Bere exekutiba nazionalak, lurraldekoak eta udaletakoak kide anitzeko zuzendaritzako organo gisa zehazten dituena.
- Boterea ez pilatzeko eta kontrolatzen duena eta kontrolatua dena ez nahasteko printzipioak dituena.

- Barne kargu bat edo kargu publiko bat hautatzeko eskumena duten organoek, era berean, hautaketa hori baliogabetzeko ahala dutela onartzen duena.
- Munduari irekita dagoela uste duena, instituzio bokazioduna eta Europari eta Munduari irekita dagoen Euzkadi baten erreferente politiko nagusia dena.
- Subiranotasuna afiliazioan dago eta boterea azken horren ordezkariari, demokratikoki aukeratua izan denari, ematen diona. Udal eta Lurralde Erakundeek beren esparruei dagozkien eskumenak erabiltzen dituzte. Alderdi gisa duen boterea organo nazionalen eskuetan dago eta beraiek erabiltzen dute, ezarritako estatutu-prozedurak errespetatuz.
- Barne demokraziarekiko konpromisoa eta adostasuna EAJ-PNVren erabakiak hartzeko erregimean jasotzen diren balio gisa dituenak.
- Alderdiak barne karguengan zein kargu publikoengan duen konfiantza ondo merezitakoa dela uste duena, aipatu karguek gure Erakundearen alde jokatzeko etengabeko konpromisoa baitute.
- Organo nazionalek beren eskumen eremuari dagokionez hartutako erabakiak berehala aplikatu ohi dira eta derrigorrez bete behar dira. Era berean, udal eta lurralde erakundeei erabakiak hartzeko beren eskumen eremuak errespetatzen dizkie.
- Lurralde artikulazioa (udalekoa – eskualdekoa – nazionala) eta artikulazio funtzionala (batzarrak – exekutibak – diziplina eta kontrola) erakunde-egituraren oinarrian dituenak (Erakundearen baitan aho batez onartutako balioak).

## V.- ALDERDIAREN BARNE ANTOLAMENDUAREN ARDATZAK

---

EAJ-PNV bezalako alderdi politiko batek, nortasun nazionalaren funtsezko oinarri politiko eta kulturalak sustatzen dituenak eta, gainera, XXI. mendean Euskal Nazioarekin lotutako proiektu bat garatzen jarraitzeko bokazioa duenak, beharrezkoa du hausnarketa, eztabaida eta erabaki politikoak bizkortasunez hartzea bultzatuko dituen barne antolamendua.

Antolamendua Alderdiaren eginbehar politikoaren zerbitzura dagoen tresna da: a) Sabino Aranaren pentsamoldea bere eginez eta eguneratuz eta b) gure nagusien dinamismo ondarea jasoz. Alderdiarentzako egokia izango den antolamendu eredua igertzea da Erakunde Txosten honen helburua.

### 1. BATZARRAK

EAJ-PNVn batzarrean oinarrituta dauden prozesu ordezkagarrien bitartez hartzen dira erabakiak. Hori beste alderdi batzuekiko ezberdintasun nabarmena da, aipatu horietan afiliatuen parte hartzea noizean behin Kongresurako ordezkariak hautatzera mugatzen baita.

Gure ordezkari sistema, batzarrean oinarritutakoa, sustraitutako balioa da. Funtzionamenduarekin lotuta dituen ahultasunak Batzarraren bizitzak baldintzatzen ditu, berau hedabideen aurrean egiten baita egunari eta orduari dagokionez.

Azkenik, Batzar Orokorrean eztabaidatutako gaien eta hartutako erabakien transmisioari buruz hitz egitea ere beharrezkoa da. Bata bestearen atzetik egiten diren batzarren egungo sistemarekin hilabete bat edo bi igaro daitezke informazioa Udal Batzarrera iritsi bitartean, baina intranet eta bere eduki sarea Erakunde guztira hedatzearekin batera egoera hori nabarmen hobetuko dela uste dugu. Hala ere, Batzarrei aurretik jasotako informazioa jakinarazteko ardura dutenek beren lanarekin jarraituko dute.

#### ● HOBEKUNTZA-PROPOSAMENAK:

**Batzar Nagusiak (BN)** izaera arrunta du eta lau urtez behin eratzen da, Alderdiaren barne eztabaida baten ostean. Bere helburu nagusiak ondorengoak dira: a) Aurreko Batzar Nagusia egin zenetik Alderdiaren jarduketa politikoaren balantzea egitea, b) Alderdiaren programa politikoa berrestea edo berritzea, eta dokumentu ideologiko eta programatikoak behin betiko onartzea c) barne

antolamendua aztertzea eta d) afiliatuek edota Alderdiko Organoek estatutuetan eta erregelamenduetan oinarrituta aurkeztu dituzten ebazpen proposamenak eztabaidatzea eta erabakitzea.

Batzar Nagusia Alderdiaren antolamendu kulturalan errotuta dagoen organoa da, garrantzi handiko funtzioak dituena. Zentzu horretan, uste da Aberri Estatutuak aldatzeko erabakia, aurretik Batzar Nazionalean onartutakoa, berresteak Alderdiaren antolamenduari bizkortasuna kentzen diola bere barne araudia momentu bakoitzeko premietara egokitzeko unean. Hori dela eta, antzina egin ohi zen moduan eskumena eskatzea pentsatzen ari dira, Aberri Estatutuen aldaketa oro Batzar Orokorrean berresteko, azken horrek onartu zuela hilabete bat gutxienez igaro ostean eta behin oinarriak kontsultatuta.

Esperientziak dioenez, Batzar Nagusia Alderdiaren barne eta maila nazionaleko gertakari handia da, proiektio publiko handia duena. Horrela bada, esparru egokia da Batzar Orokorrean dauden eta bozkatzeko eskubidea duten Batzar Nazionaleko ordezkariak aurreko bereiztutako bozketaren bitartez EBBeko presidentea eta gainontzeko burukideak aukera ditzaten, horretarako eskumena baitute. Horrela, barne hauteskunde prozesua amaitzen da.

## 2. DIZIPLINA, BERMEAK ETA KONTROLA

Zestoako Txostenaren printzipioak indarrean sartu zirenetik eta funtzioak banatze aldera, diziplina eta kontroleko organoen (Epaileak eta Auzitegiak eta Aberri Berme eta Zaingo Batzordea, hurrenez hurren) ardurak da Erakundearen funtzionamendu demokratikoa, afiliatuen eskubideak eta Estatutuen eta Erregelamenduen kontra gerta litezkeen ekintzen kontrola bermatzea.

ABZBaren eta barne Auzitegien funtzioak behar bezala banatuta egon daitezen, barne hauteskunde-prozesuekin lotutako kontuei dagokienez batik bat, ezinbestekoa da funtzioen banaketa bereiztea, hori Erakundearen funtzionamenduaren onerako izango da eta.

### ● HOBEKUNTZA-PROPOSAMENAK:

Diziplina, berme eta kontroleko organoen funtzionamendua onena izan dadin, Erakundeak beren errespetagarritasuna eta antolamenduari dagokionez duten zentzuaren maila onartu behar ditu beren erabakiak hartzeko unean. Horrenbestez, beharrezkoa da barne auzitegiek, Udaleko Epaile eta Auzitegiek batik bat, duten adiskitze-funtzioaren garrantzia azpimarratzea, Alderdiaren baitan sortzen diren arazoak konpontzeko erreferente gisa.

Era berean, beren funtzioaren garrantziari erreparatuta, kontuan hartu behar dugu diziplina, berme eta kontrolerako organoetako kideak direnen eta

Alderdiaren funtzionamendu egokia bermatu behar dutenen profil jakin bat: afiliatuen antzintasuna, Alderdiaren barne bizitzaren eta araudiaren ezagutzarekin lotutako irizpide kurrikularrak, euskara jakitea, etab.

Azkenik, interferentziak saiheste aldera, beharrezkoa da denboraldiaren ikuspuntutik Auzitegien eta ABZBen eta exekutiben eta Batzar Nazionalako ordezkarien aukeraketa bereiztea. Era berean, haien aukeraketa exekutibak eta Batzar Nazionala hautatu eta bi urtera izango da.

### 3. ORGANO BETEARAZLEAK

Organo hauei dagokie Alderdiko batzarren, gobernuaren eta administrazioaren eskumen eremuko erabakiak betearaztea. Exekutiben arteko eta azken horien eta dagozkien batzarren arteko koordinazio sistematikoa ezinbestekoa da Erakundearen funtzionamendua egokia izan dadin.

- HOBEKUNTZA-PROPOSAMENAK:

Gomendagarria da Udal Batzarrak berritzea bi urteko agintaldiaren arabera izan dadila, eta hobeto erdikako berritzerik gabe.

Denboraldiei dagokienez, gomengarria da, halaber, udal hauteskundeetarako hautagaiak aukeratzeko barne prozesua baino sei hilabete aurrerago berritu ez dadila.

#### ⇒ Taldean lan egitea

Alderdiko Batzar Orokor eta Nazional ezberdinetan zein txostenetan onetsitako estrategia politikoarekin bat etorriz, kide anitzeko zuzendaritza berezko balioa da, barne aniztasunaren elkarrizketarako eta integratiorako eskaintzen duten aukera dela eta. Hala ere, helburuak lan koordinatuaren bitartez lortzen direla kontuan izan behar dugu, eta norbanakoen ekintzen pilaketak helburu horiek lortzea zailtzen duela. Horrenbestez, ezinbestekoa da, norberaren ardurako esparruak hobeto ezagutzeaz gain, baita Alderdiko kideek aurretiaz eztabaidatutako eta adostutako estrategia eta konpromisoei ekin diezaietela ere.

Beste alde batetik, Batzorde Iraunkorrek funtzio bikoitza dute: dagozkien barne exekutibek aurretiaz hartu dituzten erabakiak gorpuztea eta barne exekutiba horiei jardunbideak eta ekintzak proposatzea. Horrela bada, aipatu Batzorde Iraunkorren esperientziari esker bizkortasuna eta eraginkortasuna irabazi dira.

Hori dela eta, aipatu horiek exekutibaren ekintza-unitateen zerbitzura dauden tresna gisa aintzat hartzekoak dira.

- HOBEKUNTZA-PROPOSAMENAK:
  - Giza eta antolamendu baliabidez eta baliabide materialez osatutako multzo kohesionatua martxan jartzea, Alderdiaren organo betearazleetan taldeko lana eta metodoa bermatuko dituen. Horri dagokionez, ondorengoak kontuan hartzen dira: a) dagozkien mailako Batzorde Sektorialetan ordezkari hautetsien parte hartzea eta konpromisoa; b) Alderdiko afiliazioari eta organoei zuzendutako Prestakuntza Baliabideei buruzko Lau Urtez Behineko Planaren programazioa, gorpuztea eta ebaluazioa; c) Alderdiko organoen zerbitzura dagoen pertsonal teknikoari zuzendutako Giza Baliabideei buruzko Planaren programazioa, gorpuztea eta ebaluazioa.
  - Nazioko eta lurraldeetako exekutibaren denborazko eta dedikaziozko erabilgarritasun materiala ahalbidetzea, norbanakoaren jardunerako zein, batik bat, koordinazio-lanaren garapenerako.

#### ⇒ Barne organoen arteko komunikazioa eta koordinazioa

Komunikazioaren erronka erakunde guztiei eta, bereziki, erakunde politikoei dagokie. Horrekin batera beharrezkoa da aldaketa kultural bat, informazioaren banaketari dagokionez. Honako hauei dagokienez kontzientzia osoa dugu: a) ideia eta proiektuei buruz eztabaidatzea bizirik egotearen, adimenaren eta askatasunaren bereizgarria da, erakundearen barne biziraupenerako eta indartzerako ezinbesteko ezaugarriak; b) eztabaida leial eta zintzoari esker gauzak ezkutatzeko, konfiantzarik ez izateko eta uniformizaziorako tentazioa saihas daiteke, horiek guztiak hilgarriak baitira erakunde politiko ororentzat.

- HOBEKUNTZA-PROPOSAMENAK:
  - Lurralde bakoitzeko errealitateak aberasteko eta hartutako erabaki politikoak ulertzeko lurraldeko exekutibaren artean komunikazio eta lankidetzako dinamika batzuk ezartzea garrantzitsua dela uste dugu, batik bat ordezkarien politikoko mapa desberdin batek baldintzatutako estrategiaren eremuari dagokionez. Topaketa-eremu honek hausnarketak egin ahal izango ditu eta ezingo ditu estatutuetan ezarritako inongo organoren eskumenak bereganatu.
  - Gai sektorialeiei dagokienez, koordinazioa eta komunikazioa hobetzeko honako hauek beharrezkoak dira: a) EBBren koordinaziopean Lurralde Kontseiluetako eremuetako arduradunen partaidetza izango duten batzorde eraginkorrak martxan jartzea eta finkatzea; b) prestakuntza-mintegien sistematizazioa; eta c) gizarte-agenteeikiko kontraste iraunkorra.

- Egiturarekin lotutako gaietan komenigarria da Alderdiaren araudian jasotako topaketa- eta koordinazio-eremuak optimizatzea.
- Oro har mugatuagoak diren esparruen arabera aplikatutako ekintza politiko estrategikoek duten eragin nazionalaren garrantzia ezagutzen dugu. Hori dela eta, ekintza horietarako ezinbestekoa da lurraldearen baitako eta lurraldeaz gaindiko adostasun sareak ezartzea. Azken horiek kasuan kasuko kontsultarako, irizpideak ezartzeko edo erabakiak hartzeko ordezkaritza nazionalako organoei dagozkie. Era berean, Lurraldeko ordezkaritza nazionalako organoei dagokie oro har mugatuagoak diren eremuetako ekintzetarako erabakien pisua beren gain hartzea.



## VI.- ALDERDIAREN ANTOLAMENDUA ETA EUZKADIREKIKO DUEN KONPROMISOA

---

### 1. INSTITUZIOEKIN DITUEN HARREMANAK

⇒ Barne karguen eta kargu publikoen arteko harremanaren bilakaera

Bizefalia izendaturikoaren funtzionamendua egokia izan dadin beharrezkoa da Alderdiko organoen eta Instituzioetako ordezkarien diskurtso politikoen eta ekintza publikoen osagarritasuna.

Kargu publikoek herritarrek alderdi politiko batengandik jasotzen duten irudiaren zati garrantzitsu bat islatzen dute eta alderdi horren proiektu politikoa betetzeko beharrezkoak diren baliabideak zehazten dituzte. Hortik dator ordezkarien ekintzek Instituzioetan duten garrantzia eta baita Alderdiko buruek kargu publikoekin konektatzeko duten moduarena ere.

Barne karguen eta kargu publikoen arteko harremana Alderdiaren baitan sustraituta dago eta oinarrizko bi irizpide dituen balioa da: a) barne ondorioetarako, kargu publikoak Alderdiak Instituzioetan dituzten ordezkariak dira; b) bere jardun politikoaren helburu eta orientazio orokorraren definizioa, jarraipena eta ebaluazioa Alderdiaren barne organoei dagozkie.

Hala eta guztiz ere, praktikan, ordezkari instituzionalak dira, maiztasun handiz, gai politiko eta sektorial handien helburuak eta ardatz nagusi estrategikoak ezartzen dituztenak.

Instituzioen jarduketa oso garrantzitsua da eta izugarritzko eragina du Alderdiaren helburu politikoak lortzeari eta aipatu horren irudi sozialari dagokionez. Bestalde, gehiengoaren jarduketa hori oposiziotik lan egiten dugun foroetan egokitzea beharrezkoa da. Hori dela eta, premiazkoa eta beharrezkoa da, era berean, barne karguen eta kargu publikoen arteko harremana nola gorpuzten den garatzea eta zehaztea. Horretarako, lan, komunikazio eta koordinazio sistematikorako jardunbide eragingarriak eta eraginkorrak ezarri behar ditugu.

#### ● HOBEKUNTZA-PROPOSAMENAK:

Barne karguen eta kargu publikoen arteko harremana egiaz nola ulertzen dugun eta, kontsekuenteki, zein helburu lor daitezkeen zehaztea lehendabiziko betebeharra da adostutako prozedurak martxan jartzeko. Eta, zentzu horretan, jarduketa eremu bat proposatzen dugu, zeinaren arabera:

- Gai politiko eta sektorial estrategikoei dagokienez, exekutibak, dagokion arduradun instituzionalarekin batera, legealdirako esparru horretako Alderdiaren helburuak zehaztu beharko ditu eta urtebeteko zehaztapenerako ekintza-plan batean islatu beharko ditu.
- Testuinguru horretan, burukidearen helburua bikoitza izango litzateke: a) alde batetik, helburuak eta ekintza-plan instituzionala gizartean sustatzeko eta hedatzeko konpromisoa, b) bestetik, Alderdiko organo eskudunen aurrean plan horren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

Gure Alderdian barne karguen eta kargu publikoen arteko harremanak mantendu beharreko balio bat izaten jarrai dezan beharrezkoa da Alderdiaren exekutibak indartzea. Burukideek egiten duten lana aditzera eman behar da eta denboraren eta dedikazioaren aldetik (barne eta kanpoko presentzia) duten baliagarritasuna ahalik eta handiena izan dadin ahaleginak egin behar dira. Bateriaezintasunei buruzko gure filosofia egokiaren funtsa botereak ez pilatzea da.

Kargu publikoek kargua hartzean eta uztean beren ondasunei eta interesei dagokienez egiten duten derrigorrezko aitortpena Alderdiaren barne esparruan ere aplikatzea aztertu beharko litzateke. Horrela, Alderdiko kargu publiko guztiek aitortpen horren kopia bat aurkeztu beharko liokete dagokien aukeraketa mailako barne organo betearazleari.

#### ⇒ Batzorde sektorialak

Batzordeak oso garrantzitsuak dira politika sektorialak behar bezala gara daitezten. Alderdiaren politika sektorialen jarraipen sistematikoa txertatzeko, eguneratzeko, bideratzeko eta egiteko eta sozializatzeko beharrezko tresnak dira, Alderdiaren diseinu eta diskurtso sektoriala duten eremuetan batik bat.

Beste alde batetik, Lan Sektorialeko Mintegi edo Taldeak (Batzordearen bestelakoak helburuari eta egiturari dagokionez) martxan jar daitezke eta jarri behar dira gai jakin bati buruz Alderdiaren helburuekin koherentea den diskurtso sektoriala islatzea beharrezkoa dela uste denean.

#### ● HOBEKUNTZA-PROPOSAMENAK:

- Batzordeetako lanerako oinarrizko jarraibide metodologiko batzuk sistematizatzea. Azken horiek Idazkaritzako pertsonalaren laguntza teknikoa izango dute.
- Beharrezko laguntza politiko-tekniko guztia eskaintzea, foro legegile ezberdinetan Alderdiko pertsona hautetsien eta Institutuzio ezberdinetako izendapen-karguen aldetik bereziki.

- Sabino Arana Fundazioarekin batera prestakuntza orokorrarekin zein alderdi sektorialarekin lotutako mintegi estrategikoak martxan jartzea eta garatzea.

## 2. GIZARTEAREKIN DUEN HARREMANA

⇒ Gizarte erakunde eta agenteekin dituen harreman-sareak

Mugimendu nazionalista garatzeko modu erabakiorrean eragina izan duen ezaugarrietako bat EAJ-PNVk bere historia luzean zehar bere inguruan eratu duen gizarte sarea izan da.

Egungo egoeraren irakurketa baten arabera, eremu tradizionalak salbuetsita, gure alderdiaren harreman sozialak hauteskunde kanpainetara mugatzen dira kasik. Zoritxarrez, pixkanaka gizarte-agenteekiko harremanaren eta interlokuzioaren eremua Instituzio publikoen eta mugimendu asoziatiboaren eskuetan utzi dugu.

Oztopo guztien gainetik mugimendu nazionalistarentzat gizartean txertatzeko zuen gaitasunaren garrantzi historikoa eta kontaktu pertsonalak eragiten duen konfiantza kontuan hartuta, premiazkoa da Alderdia Gizarteari irekitzea eta joera hori finkatzea. Horretarako beharrezkoa da Instituzio ezberdinak, hedabideak, alderdi politikoak eta Euzkadiko hiru esparru juridiko-politikoetako gizarte-talde eta agenteak barne hartzen dituen harreman sareen sistema egituratua eratzea. Funtsezkoa da Gizartearengandik hurbilago dagoen erakundea izatea, XXI. mendeko Euzkadiko aldaketaren erreferente politiko eta gizarte agente nagusia izaten jarraitzeko.

### ● HOBEKUNTZA-PROPOSAMENAK:

- Gure Alderdiko mekanismo eta baliabide guztiak martxan jarri behar ditugu, gure gazteekiko lotura egokia eta iraunkorra bermatuko duen formula bat lortzeko.
- Harremana gizarte-talde eta agenteekin batera planifikatzea, eta interesak esplizituki zehaztea eta lehenestea.
- Batzorde sektorial bakoitzaren harreman sarea zehaztea, horretarako dagokien datu-basea berrituz, eta harremana positiboa dela pentsatzea, berau informazioa kontrastatzera eta beren kezkek konpontzera mugatzen denean ere.
- Alderdiak dagokion esparruko gai estrategikoei buruz duen ikuspegia gizarte sektoreei ezagutaraztea. Alderdiok elkarrizketa irekia, alderdiaren

aldeko interesetara makurtzen ez dena, izan behar dugu gizarte-sektoreekin eta gure betebeharra da entzutea, parte hartzea eta gure ekintzei buruz informatzea.

- Gizarte esparru bakoitzerako kanalak eta Alderdiaren politika sektorialak sozializatzeko modurik egokienak identifikatzen dituen kanpoko komunikazio programa zehaztea eta gure mezuek gizartean pisua izan dezaten beharrezko komunikazio-tresnak eskaintzea.

#### ⇒ Ingurune nazionalsozialistarekiko lankidetzaren sareak (publiko objektiboa)

Gure erronketako bat Euzkadi nazionalki eta sozialki eraikitzekeko proiektu baten alde lan egiteko prest dauden pertsonak, alderdi politikoak erakunde esklerotizatuen gisa ikusten dituztenak, inplikatzeko da. Beren ekarpenak eta hausnarketak behar ditugu. Zestoako txostenak berak honakoa azpimarratzen du: *“komenigarria gerta liteke estatutuetan jasotzea udal erakundeek Alderdiaren jarraitzaileekin harremanak izateko mekanismoak sortu eta indartu ditzatela”*.

#### ● HOBEKUNTZA-PROPOSAMENAK:

- Formatu horretan ideiak eta hausnarketak gehitu eta kontrastatu nahi dituzten eta, beraz, Alderdiarekin konprometitzen diren pertsonentzako Alderdiaren foro birtuala finkatzea. Hori gure erakunde-funtzionamenduan eta gure gogoan kontuan hartzea da, seguru asko, gakoetako bat.
- Sabino Arana Fundazioa bere funtzioetan indartzea: a) euskal nazionalismoaren historia kontserbatzeko eta hedatzeko; b) gai sozial, politiko eta kultural garrantzitsuen eztabaida-foro gisa berriro eratzeko; c) antzeko instituzioekin harremanak sustatzeko; d) euskal gazteak eztabaida eta prozesu politikora berriz ere erakartzeko; e) euskal nortasun nazionalari buruzko diskurtsoa eguneratzeko eta euskal gizarte berrian balioen kultura sustatzeko.

#### ⇒ Presentzia soziala afiliazioaren bitartez

Ezinbestekoa da; izan ere: a) Alderdiari kezka eta arazo sozialei buruzko zuzeneko informazioa eskaintzen dio; b) gure diskurtsoa gizarte-esparru ezberdinetan hedatzen du; c) erakunde hauetan izan duten esperientziaren bitartez, esparru politikoan parte hartzea pentsatzen ari diren pertsonak Alderdian sartu ahal izateko lagungarria da, etab.

Etorkizuneko gizartean erreferentzia kultural eta politiko-sozial gisa Batzokiaren xedeari buruz hausnartzea eta erabakiak hartzea beharrezkoa zaigu.

Kontzeptualki eta kulturalki, “barruti itxitik” “topagunera”, foro irekira, igaroko gara eta Alderdiak Euzkadiko udaletako gizarte-agenteeekin dituen harremanak areagotu egingo dira.

Egia esan, gizarteari eta bere udalari irekita egongo den eta Alderdiaren gizarte-egoitza izango den batzoki ereduari buruzko hausnarketetan murgilduta gaude.

Batzokiak hiru funtzio ditu: a) Alderdiaren Udal Erakundearen funtzioak garatzeko eta betetzeko erabiltzen den lokal fisiko gisa; b) udaleko herritarrei, oro har, zuzendutako ekintza sozio-kulturaletarako leku gisa; eta c) kasu batzuetan, ostatu zerbitzurako lokal gisa. Jarduera hori orokorrean negozio-lokalaren maizterrek ustiatzen dute eta helburu ezberdinak ditu: gizartearen atal bat Alderdiaren egoitzara gerturatzea eta Erakundearentzako euskarri ekonomikoa izatea.

Azken urteotan, gizartearen ohiturak aldatzearen ondorioz, egoitza askotan arazoak ditugu, itxiera iraunkorrak, edota ostatu zerbitzurako maizterrak bata bestearen atzetik eta etengabe aldatzea. Hori guztia Alderdiak herrian duen irudiaren kalterako da.

Horrenbestez, orain arte batzokien funtzio hirukoitz sistematiko horri buruz berriro ere hausnartzea beharrezkoa da. Edozein kasutan ere, batzoki-topagunearen funtzioak, Udal Erakundeari atxikitako ekintzak –politikoa, kulturala, soziala, elektorala, etab.– garatzeko foro ireki gisa, aurrera jarraitu eta indartu behar du. Horretarako, erdua egokitu behar du, eta esperientziak eskaini ditzaketen batzokietatik abiatuta ikasi eta transmititu behar du.

Azkenik, gure Alderdiaren konmemorazio nagusiak gizarteari eta komunitate nazionalistari eguneratzea eta egokitzea beharrezkoa da: Aberri Eguna, uztailak 31, Alderdia sortu zen eguna, Alderdi Eguna eta Sabino Aranaren heriotzaren urteurrena, gure Erakundeak protagonizatutako egiazko topaketa politiko-sozialak. Euskal gizarteak oporrekina eta aisialdiarekin lotuta dituen beharrak eta ohiturak konmemoraziozko eta errebindikaziozko festarekin bateratu behar ditugu, trantsizio ez traumatiko baten bitartez, gertakari horiek babesteko eta indartzeko formatu berriak sortzeko eta gaurko garaietara egokitzeko. Horrela, aipatu horiek gure memoriari eutsi ahalko diote eta helburu nazionalisten belaunaldien arteko transmisioa bermatuko dute.

● HOBEKUNTZA-PROPOSAMENAK:

- Beren helburua argi duten edo beste erakunde batzuetara, beharrezko barne egokitzapen eta konpromisoak dituztenetara, zuzentzeko aukera gehiago dituzten Udal Erakundeekin batera egindako programa pilotuak martxan jartzea.
- Lurralde batean zein bestean eta Udal Erakundeetan nahiz beste erakunde batzuetan txertatutako edo probatutako berrikuntza programak edo esperientziak kontrastatzea eta trukatzea.

- Eguneroko jarduera familia-bizitzarekin pixkanaka bateratzeko ikertzea eta baloratzea, erakunde eta jarduera-plangintzako irizpide gisa. Kontuan hartzekoak dira teknologia berriek eta birtualki-presentzialki parte hartzeko eredu mistoek eskaintzen dituzten abantailak.
- Alderdiaren ateak irekitzea, eskura erraza eta ikusteko modukoa izatea, parte hartzea, entzutea eta errespetatzea modu natural eta positiboan gizartearen baitan sartzeko eta euskal gizartearen gehiengoa interpretatzeko eta haien gainean eragin ahal izateko harreman-sarea mantentzeko edota berreskuratzeko gakoak dira. Biztanle guztientzat, oro har, “Foro eta esperientzia interesgarri” gisa ateak zabaltzeko eguna, herri erakusketak etab. martxan jar daitezkeen jarduerak dira.
- Alderdiaren gertakari nagusien eguneratzeaz eta, tasaturiko aldi batean, EBBari proposamen bat aurkezteaz arduratuko den Lantaldea sortzea.

### 3. ALDERDIA MUNDUARI IREKITZEA

#### ⇒ Nazioarteko politika

Historikoki gure Alderdiak Europan Euzkadiko kontuari buruz duten ezagutza eskasari aurre egin behar izan dio. Esperientzia on bakarrak Europako esparruan beste mugimendu nazional batzuekiko itunen ondoriozkoak izan dira.

Gaur egun, Europan ezberdinak eta, neurri batean, aurkakoak diren bi errealitate topa ditzakegu. Alde batetik, hasiera bateko eredu federalistetatik urruntzen ari da eta estatuen konfederazioen aldekoa da. Baina bestetik, hedapeneko Estatuetan batik bat gutxiengo nazionalekin dauden arazoek Europak konpondu gabeko arazo horiei erreparatzea eragin dute. Testuinguru horretan, Estatu espainiar eta frantsesaren esparruan eta Europakoan eta nazioartekoan itun eta lankidetzak politikoak bilatzea funtsezkoa da gure Erakundearentzat.

#### ● HOBEKUNTZA-PROPOSAMENA:

Nazioarteko politika praktika egituratua eta gaur egungo garaietara egokitutakoa garatzea eta kanpo-munduko harremanetarako foroetan eta sareetan parte hartzea. Horretarako ezinbestekoa da: a) Madrilen eta Bruselasen ditugun parlamentuko ordezkarien lana egokitzea; b) gure Alderdiak Europako testuinguru politikoan duen presentzia finkatzea; c) gure instituzio publikoen kanpoko politika sustatzea, harremanetarako baliabide eraginkorren bitartez eta gure errealitate nazionala Europan eta munduan gizartearen eta politikaren ikuspuntutik ezagutarazteko.

## ⇒ Mugaz kanpoko erakundeak eta diaspora

Euskalduna bezalako Estaturik gabeko Nazio batentzako, Diasporak presentzia eta eragineko tresna izan behar du nazioarteko testuinguruan. Horretarako, beharrezkoa da Mugaz Kanpoko Erakundeak eta Alderdiari egiten dioten ekarpena biziberritzea eta, batik bat, aipatu horiei orientazio berri bat ematea.

Mugaz Kanpoko Erakundeek, bizi diren herrialdean integratzen diren unetik aurrera, euskal nazionalismoaren mezua eta filosofia islatu behar dituzte.

### ● HOBEKUNTZA-PROPOSAMENAK:

#### **a) Mugaz Kanpoko Erakundeak:**

- Herrialde bakoitzeko Instituzioek eta alderdi politikoek gure Alderdiarekin eta Euskal Instituzioekin dituzten harremanak estutzea, mugaz kanpoko erakundeekin eta Kontseilu Nazionalarekin batera modu koordinatuan lan eginez.
- Alderdiko organoekiko kontaktu birtualaren bitartez, Euzkaditik datorren informazioa jasotzea eta egokitzea eta berau beren herrialdeetako hedabideei helaraztea.
- Alderdiaren eta diasporaren arteko “zubi” gisa jardutea, militanteak erakartzeko edota jarraitze-sare bat antolatzeke.
- Aipatu proposamen guztiek elkarrekiko osagarriak diren oinarrizko jarduera batzuk kontuan hartu behar dituzte: a) beren herrialdeetako hedabideekin, alderdi politikoekin eta Instituzio publiko eta pribatuekin lan egitea eta iritziak eragitea (lobby lana); b) euskal emigrazio berriaren integrazio prozesuari laguntzea; c) Euzkadiko merkataritza eta kultura jarduerak txertatzeko bitartekari lanetan aritzea; d) herrialde “hartaileetako” (gehienetan sorteri ere bihurtu direnak) bizitza sozial eta politikoa modu aktiboan parte hartzea.

#### **b) Diaspora:**

- Dagozkien estatuko legeriekin bat etorritik, datu-base operatiboak garatzea eta euskal jatorriko hautetsiekin, enpresaburuekin, gizarte-agenteekin etab. kontaktuan jartzea, horrela, euskal kulturaren biziraupenari laguntzeko.
- Kolektibo horiei Euzkadiko gaurkotasuna, Alderdi Berriak bezalako ikuspegi politikotik aztertutakoa, helaraztea. Azken horiek uneoro eguneratuta egon beharko dute eta herrialde hartzaileari, beren arazoei eta beren bizitza politiko eta sozialari buruzko informazioa ere bildu beharko dute.

- Horretarako, Alderdiak Institutio Publiko eta pribatuen aurrean euskal emigrazioa eta erbesteratzea eta Euzkadik jasotako inmigrazioa ezagutzeko zentro handi baten sorrera sustatuko du. Azken hori euskal emigrazioaren eta erbesteratzearen historiari buruz gehiago jakiteko eta Euzkadin beren inplikazioa handiagoa izan dadin etorkinekiko elkartasuna garatzeko baliagarria izango da.
- Zentzu berean, Euzkadirantz itzultzea erabakitzen duten euskal gizon eta emakumeentzako edota beren ondorengoentzako arreta bereziko politikak sustatuko dira.
- Nolanahi ere, diasporaren datu-base bat ezarriko da, nazioarteko mailan tresna operatibo batetaz baliatu ahal izateko.

#### 4. EZAGUTZAREN PRESTAKUNTZA, BARNERATZEA ETA KUDEAKETA

##### ⇒ Kargu publikoak

Kudeaketarako eta gauzak behar bezala egiteko gaitasuna ezinbestekoak dira esparru honetan, diskurtso politikoa egiteko eta Alderdiaren proposamenak eta iritziak ekintza publiko bihurtzeko unean proiektio positiboa izateaz batera.

##### ● HOBEKUNTZA-PROPOSAMENAK:

- Prestakuntza programa egokiak eta berritzaileak martxan jartzea. Azken horiek gure ordezkari publikoen arazoak eta erronkak modu didaktikoan jorratuko dituzte. Nahikoa esperientzia dugu Euzkadin hastear dagoen etapa politiko berri honetarako egokienak izan daitezkeen gaiak eta formatuak ebaluatzeko.
- Gai estrategiko sektorialeiei buruzko prestakuntza eta eguneratze politikoko topaketa irekiak antolatzea.
- Gai estrategikoei buruzko prestakuntza ikastaroak, lantegiak eta mintegiak antolatzea, eztabaida ireki eta dinamikorako foroak eragingo dituztenak eta, era berean, afiliatuentzako zein jarraitzaileentzako foro espezifiko eta egonkorrak sortuko dituztenak.

##### ⇒ Barne karguak eta Afiliazioa

Politika sektorialak behar bezala ez ezagutzea, oro har, bi arrazoiren ondoriozkoa da: a) beharrezko ezagutza batzuk, orokorrean, espezifikoak dira



b) barne-hauteskunde sistema berak, irekia denak eta beharrezko prestakuntza esplizituki zehazten ez duenak, irizpide horren gainean exekutibak sortzea eragozten du.

● HOBEKUNTZA-PROPOSAMENAK:

- Ezagutzak batzorde sektorialen, barne hausnarketa foroen, kanpoko adituak dituzten mintegien etab.-en bitartez barneratzea.
- Prestakuntza komunikazioaren, talde dinamiken, giza baliabideen kudeaketaren, hauteskunde jarraipenerako ikerketen, ikerketa sozio-politikoaren eta marketing politikoaren, etab.-en esparruan.
- Politika sektorialen jardunbide estrategikoak zehazteko nahikoa ezagutza eragingo duten gai sektorial garrantzitsuen inguruan Aditu-talde bat sortzea.

Horrek guztiak Alderdiaren eta bere ordezkarien erabakiak eta iritziak politikaren ikuspuntutik ulertzea nabarmen ahalbidetzen du Institutuzio publikoetan. Testuinguru horretan, sistematikoki zehaztuko dira afiliatioari zuzendutako ikastaroak, zilegi bada lurraldeen arabera garapena eta eduki malgua kontuan hartzen dituztenak. Helburua beharrak asetzea eta topatutako interesetara egokitzea izango da eta hori guztia Alderdian sartu nahi duten pertsona guztiek afiliatu izan aurretik derrigorrez egin behar duten prestakuntza ikastaroa ahaztu gabe.

Alderdiaren Prestakuntzari buruzko Institutua sortzea eta martxan jartzea. Azken horrek alderdikideentzako ad hoc programa, mintegi eta ikastaro orokorrak eta espezifikoko antolatuko ditu, profilen, beharren, helburuen etab.-en arabera. Horretarako, egiaztatutako ezagutzak, balioa eta esperientzia dituzten alderdikideen laguntza izango dugu.

Azkenik, Alderdiaren ingurunera eta gizarteko sektore ezberdinetan pertsona afiliatuak eta jarraitzaileak erakartzera zuzendutako ikastaroak antolatuko dira, Sabino Arana Fundazioak zuzenean antolatutako mintegien, ikastaro monografikoen, argitalpenen, nerabeentzako eta nerabeen aurrekoentzako udako ikastaroen, etab.-en bitartez.

## 5. ALDERDIAREN BARNE BIZITZA ETA KOMUNIKATZEKO ETA PARTE HARTZEKO BIDEAK DINAMIZATZEA

### ⇒ Partaidetza

Eztabaida, ideiak trukitzea eta diskurtso politikoa eguneratzea buruzagien lana izatera igaro da eta, gainera, hedabide handien bitartez gauzatzen dituzte

bereziki. Testuinguru horretan, afiliazioak hauteskunde aurreko aldietan mobilizazio mugimenduko irudia sortzera mugatuta geratzeko arriskua du.

Pertsona afiliatu oro alderdi batean gara dadin eta ezagutza politikoko corpus sendo bat izan dezan, ezinbestekoak dira informazioa, prestakuntza eta Alderdiaren bizitzan zuzenean parte hartzea. Partaidetzaren eta banatutako arduraren (barne kohesioko funtsezko ezaugarriak) bitartez, informazioa eta prestakuntza lortzeko beharra uztartzen da indibidualki zein kolektiboki.

Gure Alderdian, udaletako erakundeen autonomia mailak eta deialdiak egiteko duten gaitasun potentzialak barne partaidetzarako maila ona ahalbidetzen dute. Baina hori ez da gure afiliatuentzako partaidetza errealeko foro bakarra; gehienentzako garrantzitsuena ere ez da. Zestoako txostenean hori zehazten zen, izan ere *“politikak formulatzeko edo gai monografikoak aztertzeko, Alderdiak topaketak, konferentziak, mintegiak, etab. antolatuko ditu eta horien bitartez afiliatuen partaidetza zuzena aberastuko du”*. Hogei urte beranduago, komunikazio, informazio eta partaidetza tresna berriak existitzen dira, Alderdiaren barne bizitzako alderdi guztietarako kontuan izan behar ditugunak.

● HOBEKUNTZA-PROPOSAMENAK:

- Informazioaren transmisioa bizkortzea eta, bereziki, norabide bikotasuna ahalbidetzen duten tresnak martxan jartzea (Alderdiaren baitan pertsonen arteko harremanak indartzeko bitarteko gisa, teknologia berriek ahalbidetzen dituzten komunikazio eremuekin zerikusia dutenak batik bat).
- Presentziako foroak sortzea eta dagoeneko sortutako birtualetaz baliatzea, horretarako interesa duten pertsona afiliatuek hitz egiteko, eztabaidatzeko, hausnartzeko, iritziak alderatzeko etab.–etarako aukera izan dezaten, kontu sektorialeiei dagokienez batik bat, eta gai politiko orokorrak ahaztu gabe.
- Komunikazio-sistema berri bat diseinatzea, egun dugunaren osagarria izango dena eta goitik zein behetik datorren informazio bertikala eta proposatutako informazio horizontala jasoko dituen.
- Internetek eskaintzen dizkigun komunikazio aukerez baliatzea. Azken horiek egitura hierarkizatu eta bertikal tradizionaletatik harreman horizontalago eta bizkorragoetara garamatza. Horrek militantzia modu berriak garatzeko aukerak eskaintzen dizkigu, informatika garapena gizarte guztira hedatu ahala geroz eta garrantzitsuagoak bilakatuko direnak.
- Euzkadi guztian banda zabala txertatzeaz batera telebista korporatiboaren aukera aztertzea. Azken horrek batzokiekin zuzenean, aise, azkar eta modu eskuragarrian komunikatzeko aukerak biderka ditzake, baita informatika ezagutzarik ez duten pertsonentzako ere. Bestalde, norberaren Lurralde Batzarrak, Batzar Nazionalak edota Batzar Nagusia Alderdiaren afiliatuei helarazteko ere erabil daiteke.

- Udal Erakunde ezberdinak dauden udaletan, elkarrekin egindako informazio batzar, bilera eta ekintzak ahalbidetzea eta sustatzea.

### ⇒ Norabide biko komunikazioa

Dagoeneko adierazi dugun moduan, beharrezkoa da afiliazioak gai politiko garrantzitsuei, nazionalari eta lurraldekoei, globalei eta sektorialeki dagokienez “gertatzen ari dena” jakitea, hori baita beren eragin-eremuan modu eraginkorrean lan egiteko bide bakarra. Bereziki garrantzitsua da udaleko barne karguei eta kargu publikoei erreparatzea, horiek baitira Alderdia Euzkadi guztian zehar ordezkatzeko duten pertsonak.

Komunikazioak (horizontalak zein bertikalak) norabide bikoak izan behar du barne parte hartzea eta kohesioa geroz eta errealitate sendoagoa izan daitezen. Norabide biko komunikazioa da ikuspegi politikoa mantentzen eta sendotzen duena.

Beste alde batetik, batzorde eta foro parlamentarioetan egiten den lanari buruzko informazio sistematikoa ezinbestekoa da udal mailan politika lana behar bezalakoa eta koherentea izan dadin. Horrenbestez, EBBa eta horretarako eskumena duten organoak komunikazio eraginkorra lortzeko tresnez baliatu behar dira.

Azkenik, EBBaren eta Batzar Nazionalaren arteko komunikazioak nahikoa eta oparoa izan behar du, bataren zein bestearen jardun politikoak aurrera jarrai dezan.

#### ● HOBEKUNTZA-PROPOSAMENAK:

Barne Komunikazioko Plan (BKP) bat planifikatzea eta garatzea. Plan horrek honako ezaugarriak zehaztu beharko ditu gutxienez:

- komunikatuko diren (afiliatuak, kargu publikoak, barne karguak) talde ezberdinak (audientziak);
- audientzia bakoitzerako erabiliko diren komunikazio-kanalak (Internet, telebista korporatiboa, konferentziak...), audientziak komunikazio-kanal hori eskuratzeko aukera izan dezan;
- audientzia bakoitzari komunikatuko zaizkion mezuak eta transmitituko den informazioa aukeratzeaz eta laburbiltzeaz arduratuko den organoa;
- batzorde sektorialek gai sektorialak Alderdiaren oinarriari jakinarazteko jokatzeko duten papera.

## 6. ALDERDIA MAILA NAZIONALEAN INDARTZEA

Epe ertain edo luzera, Euzko Alderdi Jeltzalearen etorkizuna bere izaera nazionalista azpimarratuko duen alderdian datza: nazionalista gisa bizirauteko, euskal esparru nazionalako alderdi nagusia izateko, beharrezkoa da, praktikan, bere antolamendu nazionala indartzea eta, aldi berean, lurralde bakoitzaren erronkak sustatzea.

Batzar Nazionalaren eta EBBaren ardura da jardunbide politiko eta sektorial nagusiak sustatzea, Lurralde Kontseilu eta Batzarrek egindako hausnarketekin batera. Horrela, helburuak komunak izango dira eta guztiek norabide berean lan egin dezaten beharrezko komunikazio eta koordinazio mekanismoak zehaztuko dira. Era berean, lurralde bakoitzaren ezaugarri bereziak, beharrak, erronkak eta proiektuak errespetatuko dira eta aipatu horiei merezi duten estaldura emango zaie.

### ● HOBEKUNTZA-PROPOSAMENAK:

- EBBak, Lurralde Kontseiluen bitartez, presentzia sistematikoa eta komunikazio errealeko kanala mantenduko ditu lurralde bakoitzean. Horrela, azken horien proiektu, ekintza eta erronka politikoei estaldura emango die eta Alderdiaren ekintza koordinatua sustatuko du eremu nazionalan.
- EBBak hiriburuetako Alkate zein Ahaldun Nagusi izateko hautagaien profilaren definizioari eta proposamenari buruzko informazioa jasoko du. Lurralde Kontseiluek, elkarrekin, esparru nazionalerako eta nazioz gaindiko hautetsien foroetarako hautagaien profilak definitzeko eta proposatzeko parte hartuko dute.
- EBBaren zerbitzu orokorrek, juridikoek eta idazkaritzarekin lotutakoek Lurralde Kontseiluen eskakizunei erreparatuko diete, aipatu horiekiko koordinazioaren bitartez.

## 7. BARNE HAUTESKUNDE-PROZESUEN ANTOLAMENDUA

Barne hauteskunde-legediaren oinarrizko ezaugarriak Aberri Estatutuetan erregulatuta egon behar dute. Era berean, dagokien Hauteskunde-Erregelamenduan garatu behar dira, honako oinarrizko lau irizpideak kontuan hartuta: a) prozeduren dinamika erraza izan dadila; b) hautagai guztiek aukera berdina dituztela bermatzea; c) boto pertsonala askatasunez eta sekretuki

ematen dela bermatzea; d) prozesuaren eraginkortasuna. Horrela bada, ondorengoak argitzea edo zehaztea beharrezkoa da:

- Hauteskunde-prozesuari ekiteko deialdiak: deialdia nork egiten duen eta deialdiak nola egiten diren.
- Hautagaiak aurkeztea: hautagaien baldintza pertsonalak, baldintza formalak eta aurkezten diren organoa edo instantzia.
- Hala badagokio, horiei buruzko programak, publizitatea eta eztabaida aurkeztea.
- Bozkatzeko eskubidea izateko baldintzak.
- Hauteskunde-sistema eta zenbaketa.
- Bakanteen ebazpena.
- Hauteskunde-prozesu bakoitzaren baitan ordezkapen eta gehiengoaren sistema.
- Gure hauteskunde-prozesuetan generoarekin eta euskararekin lotutako irizpideak txertatzea.
- Batzar Nagusiak EBBko presidentea (aurretiaz eta bananduta emandako botoaren bitartez) eta exekutiba nazionalako gainontzeko burukideak aukeratzen ditu, Batzar Nagusiaren esparruan.
- Hauteskunde-prozesuen iraupena eta egutegia, prozesuaren bermeei kalterik eragin gabe.

## VII.- EUSKARA ETA POLITIKA LINGUISTIKOA EAJ-PNV-REN ANTOLAMENDUAN

---

*“Euskara da gure hizkuntza nazionala. Euskal herritarrek beren hizkuntzari eutsi diote, transmititu egin dute eta modu ireki eta demokratikoan hura berreskuratzearen eta normalizatzearen aldeko apustua egin dute. Euzko Alderdi Jeltzalea - Partido Nacionalista Vascok euskararekiko konpromisoan sakontzen jarraitu behar du eta gaurko momentu historikoarekin bat datozen urratsak eman behar ditu. Horrek gure hizkuntzaren, oraindik gutxiengo batena eta gutxitua izaten jarraitzen duenaren, aldeko ekintza positiboari dagokionez ahalegin berriak egitera bultzatzen gaitu”.*

Horrela dago Euskararen Erabileraren Normalizazioari buruzko Lehendabiziko Planean zehaztuta. Aipatu Plana 2005eko urriaren 20ko Ezohiko Batzar Nazionalean onartu zuten, oinarriak kontsultatzeko eta Lurralde Batzarretako eztabaida eta onespen fasearen ostean.

Plan horrek Alderdiak gure hizkuntza nazionalaren sustapenari eta erabilerari dagokienez duen konpromisoa indartzen du, ekintza politikoko esparru guztietan, eta Alderdiak ebalua daitekeen moduan hartutako ardura kualitatiboki eta kuantitatiboki zehazten du.

Euskara Plan honen oinarrian dauden irizpideek gutxitze egoeretarako edo kolektiboentzako ekintza positiboko printzipioekin zerikusia dute. Azken horiek ondorengoak dira:

- Afiliatuen eta, oro har, euskal herritarren eskubide linguistikoak bermatzea.
- Ardura publikoak eta barnekoak dituzten EAJ-PNVko pertsonen parte hartze aktiboa eta konpromisoa.
- EAJ-PNVren ekintzak instituzio publikoen ekintzen osagarriak izatea.

Erakundeak aipatu printzipioetan oinarritutako politika linguistikoarekiko duen ardura azpimarratzen dugu berriro ere eta afiliazioaren heldutasunari eta Alderdiaren organo guztiei eskatzen diegu banatutako konpromiso komun honi erantzukizunez ekiteko.

## VIII.- BARNE ARAUDIA TRESNA GISA

---

Alderdiaren antolamenduaren bilakaera historikoaren analisiak argi eta garbi erakutsi digu berau etengabekoa izan ez dela, alderantziz baizik: antolamenduarekin eta araudiarekin lotutako funtsezko ezaugarri batzuek bilakaera nabarmena izan dute.

Beharrezkoa da hori azpimarratzea ikuspegi erreal bat izateko eta antolamenduarekin eta araudiarekin lotutako kontuek irakurketa berriak eta etengabeko ebaluazioa behar izatea naturala dela –horrela izan da gure Alderdiaren historian zehar– ulertu ahal izateko. Horrela, Alderdiaren helburuen aldeko tresna egokia eskura izaten jarraituko dugu.

Barne antolamendua eta araudia bitartekoak dira, eta ez helburuak, eta bere helburu politikoak lortzeko Alderdiaren funtzionamendu egokia ahalbidetzeko eta bermatzeko lagungarriak izan behar dira. Barne antolamenduarekin eta araudiarekin lotutako kontuak eguneratzeak Alderdiaren funtzionamendua egokia izateko baldintzen araberakoa izan behar du. Beste hitz batzuetan, funtzionamendu demokratiko eta bizkorreko alderdi orok bere helburu politikoen zerbitzura dauden antolamendu eta araudi eraginkor eta eragingarrietan oinarrituta egon behar du.

Txosten hau onartzen den unetik aurrera, gure eskuetan dago, EAJ-PNV Erakundea osatzen dugun guztion eskuetan, hemen egin diren hobekuntza-proposamenen ekintza eta programa zehatzek garapen egokia izan dezatela.

1922an Zornotzan aurrera egin ahal izan genuen. 1933an Tolosan, 1977an Iruñean eta 1987an Zestoan. Urte haietan guztietan ugariak ziren itxaropenak eta arriskuak. Gaur egungoak bezalako urteak. Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vascoren urteak.